

MUSIKA

BILBO

- **El deseo de otra cosa.** Music Hall. Tras-2-Pasosen eskutik, Mistyk kafe antzokian, 20:30etan.
- **Anje Duhalde eta Josu Zabala.** Kafe Antzokian, 20:00etan.

DONOSTIA

- **Joaquin Rodrigori omenaldia.** Roland Saad-Ginesa Ortega. Kursaalean, 20:30etan.

GASTEIZ

- **Moskuko hari laukotea:** Vladimir Talanov (biolina), Alexander Talanov (biolina), Olga Bulakova (biola) eta Alexei Steblev (biolontxelo). Vital Kutxa fundazioko kultur aretoan, 20:00etan.
- **The Brontés.** Unibertsitatean, 19:30etan.

ZINEMA-BIDEOA

BILBO

- **Senso.** L. Viscontiren filma. Karmengo aretoan, iluntzeko 19:45etan.

HITZALDIA

BILBO

- **Exclusión social y pedagogía de la responsabilidad.** Joaquín García Roca irakaslearen eskutik, Deustuko Unibertsitateko Gradu Aretoan, 19:30etan.

BAIONA

- **Ipuin laburrak literaturan, euskarazko literaturan eta tradizio unibertsalean.** Gilmen Uriberen eskutik, Unibertsitatean, 16:00etan.

BESTELAKOAK

BILBO

- **La Inmortalidad.** M. Kunderaren eleberrari errepasoa, ALFA tailerrarekin. Espacio de los Mundosen, 19:30etan. Literatur tailerra.

GETXO

- **Irakurzaleen Txokoko bilera.** Bizarra Lepoan euskara elkartearen egoitzan, 19:00etan.


IKASTAROAK

ASTIGARRAGA

- **Ballet ikastaroa.** Urtarriletik ekainera bitartean izango da, Kiroldegian. Astelehenero, 17:00etatik 18:00etara, 5 urte-tik gorako haurrentzat. Izena emateko edo argibideetarako deitu 656759066 telefonora.
- **Funky ikastaroa.** Urtarriletik ekainera bitartean izango da, Kiroldegian. Astelehenero, 17:00etatik 18:00etara, 9 urte-

ERAKUSKETAK

'Motozikletaren artea' • Bilbon, Guggenheim museoan • Apirilaren 23a arte



DAVID HEALD

BMW R32 (1923) motoa eta bestelakoak ikus daitezke Bilbon.

Motozikletaren bilakaeraren kronika Guggenheim museoan

MOTOZIKLETAREN ARTEA izenburua du Bilboko Guggenheim museoan azarotik ikus daitekeen erakusketa erakargarriak. Frank O. Gehryk berak diseinatu zuen erakusketaren instalazioa, eta BMWren lankidetzaz izan du.

XX. mendearen ikur kultural bihurtutako motozikletaren teknologia eta diseinuaren bilakaera dago erakusgai. Erakusketak motozikletaren serieko produktioaren mende oso bat eta hortik aurrera izan duen bilakaera ez ezik, XX. mendea zehazten duten aurrerapen teknologikoak, alderdi kulturalak, soziologikoak eta ekonomikoak ere biltzen ditu. Alderdi horietaz gain, merkatua, merkaturatzea eta kontsumitzailleen aukera eta nahiak motoen osagaien eta formaren bidez ematen dira aditzera.

Fama handiko motoak

aurki daitezke museoan: Hildebrand & Wolfmüller (1894), zortzi balbulako BTR Harley Davidson (1911), BMW R32 (1923), Honda CB750 Four (1970), MV Agusta 750S (1973)...

Erakusketako bisitaldiei dagokienez, bisita gidatuak egiten dira, doan. Asteartetik ostiralera, 13:00etan euskaraz eta gaztelaniaz; 16:00etan gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. Asteburuetan 16:00etan gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez, eta larunbatetan familientzako bisitaldia, 17:00etan.

Ikaleentzako programa eta lantegi bereziak ere antolatu dituzte, baita hitzaldiak ere. Gaur Getxon *Motozikletaren artea* hitzaldia emango dute, Erromoko kultur etxean, 19:30etan.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

iraupena izango du. Izena urtarrrilaren 14a baino lehen eman behar da. Informazio gehiago, 943 86 10 56 zenbakian.

LEHIAKETAK

ARRASATE

- **Literatur lehiaketak.** Ipuina, poesia eta bertso paperak. Lanak otsailaren 11 baino lehen bidali behar dira honako helbidera: AED Elkarte / XIII. Arrasate Lehiaketak / Pablo Uranga kalea, 4 behe / 20.500 / Arrasate.

ERRENTERIA

- **Errenteria Hiria V. Bideo Lehiaketa.** 16 eta 35 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Jatorrizko lanak VHS edo SVHS formatoan aurkeztuko dira eta gehienez 30 minutuko iraupena izango dute. Errenteriako Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean, urtarrrilaren 14an baino lehen aurkeztu behar dira lanak.

HERNANI

- **2000ko Inauteriak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa.** Jatorrizko lanek 38 x 44 zm.-tako neurria behar dute. 'Hernaniko Inauteriak 2.000' lema eramatea beharrezkoa da. Lanak urtarrrilaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira Biteri kultur etxean (18:00etatik 20:00etara).

ZARAUZ

- **XVIII. Xabier Lizardi saria.** Lanak urtarrrilaren 15a baino lehen bidali behar dira, Zarauzko Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

tik gorako gaztetxoentzat. Izena emateko edo argibideetarako deitu 656759066 telefonora.

AZPEITIA

- **Emakumea eta aldagetak bizitzaldian.** Urtarrilaren 24an hasiko da Azpeitiko Gizarte Zerbitzuak antolatutako ziklo programa. Bertan honako gaiak landuko dira: familiko etxetik irteera, haurdunaldia eta amatasuna, seme-alaben adoleszentzia, depresioa eta bakardadea, hirugarren adina... Gaiak Aitonena areto nagusian jorratuko dira, astelehenetan, 15:00etatik 17:00etara. Parte hartzeko deitu 943-157192 telefonora urtarrrilaren 18a baino lehen.

BILBO

- **Aretoko dantzak.** Danza Galibogunearen eskutik, ostegun eta ostiraletan 20:00etatik 22:00etara. Eta **dantza orientala** hiru larunbatetan: urtarrrilaren 15a, otsailaren 19a eta martxoaren 18a. Argibide gehiago 94-4420626 telefonon.

TOLOSA

- **Lore arteaz ikastaroa.** Astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara izango da. Urtarrilaren 25ean hasiko da eta 40 orduko iraupena izango du guztira. Izena 943-670383 edo 670388 telefonon eman behar da.

ZUMAIA

- **Bizikleta eta motozikleta brikolajearen ikastaroa.** Bizikleta: 18 orduko ikastaroa ostiral arratsalde, 18:00etatik 21:00etara. Motorra: 18 orduko

ikastaroa larunbat goizez, 10:00etatik 13:00etara. Matrikula: Bi ikastaroak 4.000 pezeta (gazte txartelaz 2.000) eta ikastaro bat 3.000 pezeta (gazte txartelaz 1.500). Izena emateko epea urtarrrilaren 17an amaitu-

ko da. Argibide gehiago 943-861056 telefonon.

- **Kontrol mentaleko ikastaroa.** Foronda kultur etxean izango da, larunbat goizetan (10:30etatik 12:00etara). Doaneko ikastaroa da, eta hilabete eta erdiko